# XX. mendeko euskal frantziskotarrak. Historialari hasi berrientzako ohar batzuk

Joseba Intxausti

**Laburpena**

Euskal Herriko erlijiosoen historiaz ari da artikulu hau, zehazkiago XX. mendeko frantziskotarrenaz. Euskal Herrian jaio edo/eta bizitako erlijiosoez, eta erbestera joandakoez. Zabala izan da frantziskotarren Euskal Herriko Familia erlijiosoa: hemeretzi Institutu Erlijioso. Lehenik, berorren ikuspegi osoa ematen du idazlanak, eta banan-banan aipatzen denak. Artxiboak ezagutzeko zenbait ohar egiten da, Euskal Herrian nahiz erbestean bilatu beharko direnei buruz. Izan duten hemengo pisu historikoagatik, arreta bereziagoz begiratzen dira frantziskotarrak[ofm] eta kaputxinoak, berauen historiografia orokorra ere gogoratuz; gisa berean, azken mendean gurean izandako emakume-gizonezkoen Institutu frantziskotar berriak ere aintzakotzat hartu dira, hauei guztiei lotuta bizi izan diren laiko herritarren Elkarteak ahaztu gabe. Bukatzeko, artikuluan zehar aipatutako argitalpen guztien erreferentzia zehatzak ematen ditu idazlanak.

*Hitz gakoak:* Euskal Herria, frantziskotarrak, kaputxinoak, institutu erlijiosoak, XX. mendea.

Kasik mende betean (1875-1965), Euskal Herrian landatutako Institutu Erlijiosoek (1983ko Kode kanonikoaren aurreko *Ordena* eta *Kongregazioek,* alegia) sekulako goraldi eta arrakasta ezagutu zituzten, hemen gurean ez ezik Eliza katolikoaren nazioarteko egituretan, berebiziko protagonismo demografiko-instituzionala izateraino (Intxausti 2004: *passim*).

Atzerrian horrelakorik ikusi ahal izan da, Indian edo Latinoamerikan adibidez, edo Institutuetako aginte-egituretan eta Erroman. Oro har, Euskal Herriaren pertsonal-ekarpena handia izan da (Beraza & Agirrezabala 1998; Unzueta & Izpura 2001; Alvarez Gila 1998).

Berrikitan, ordea, urtez urte eraikitako egitura instituzional hori ahulduz joan da, indarberritzeko funtsezko barne-aldakuntzak izan dituen arren, izan ere izanberritze teologiko eta egiturazkoekin batera beheraldi demografiko gaitza ezagutu dute Institutu Erlijiosoek, Kontzilio-ondo luze batean (1965...).

Esaterako, Euskal Herriko kontenplalarien artean, hainbat Monasteriotara 1960ko hamarkadaz geroztik ez da sartu mojagai gazte bat bera ere. Horrelakoetan adin-piramidea buruz behera jarri da, orain batez besteko adina 75/80 urtetara hurbiltzen delarik. Oro har, euskal gizarteak jada ez ditu hornitzen Institutu Erlijiosoak jende berriz, eta Mendebaldeko beste herrialdeetako ildo beretik doa Euskal Herriko Eliza ere.

Azken hamarkadetan eremu honetako bi gertakari deigarri ezagutu ditugu, elkarren parean eta batak bestean eraginez: alde batetik, Institutuen Kontzilio-ondoko berrikuntza eta biziera-aldakuntza (pentsamoldeetan, egunerokotasunean, esanekotasunean, otoitzean: 1960...), eta bestetik, Euskal Herriko gizartearen arrapaladako sekularizazioa (1968...).

Gauzak zerbait lehenagotik begiratuz, zera ikus dezakegu: epe erlatiboki laburrean (mende eta laurdenean, alegia: 1875-2000), aurreko hamar mendeetako egoera (848-1840) hirutan irauli dela gure artean: esklaustrazioa lehenengo (1840-1860), izanberritze arrakastatsua hurrena (1875-1965) eta beheraldi geldiezina azkenik (1965-2000).

Herrialdez herrialde baditugu euskal erlijioso-etxeen XX. mendeko datuak: jada 1917an 503 ziren, eta 1953an 783; beranduko data batean (1999), artean 811 komunitate erlijioso zenbatu ahal izan nituen Euskal Herri osoan. Kopuru batekin nahiz besterekin, sare hertsia izan da Etxe horiena. (Intxausti 2004, 8. or.; 2002, 26. or.).

Gure gizartean Erakunde eliztar horiek izan duten pisu sozialagatik, euskal gizarteaz arduratuta lebilkeen historialariak nahitaez interes biziz begiratu beharko du gure Aro Garaikideko kapitulu hori. Zoritxarrez, oso bakanak dira Institutu horietako bakoitzaren Euskal Herriko historia orokorra eta partikularra eman dizkigutenak (Urkiza, Unzueta & Mendiola 2005, Urkiri 1985); lanik franko geratzen da egiteko iker-eremu honetan.

Adibide gisara, orrialde hauek frantziskotarren datu eta albiste historiografiko batzuk aurkeztu nahi dituzte, aurrerago batean ikergai izan beharko duen alor honetarako sarrera zerbait samurtzeko.

## 1. FRANTZISKOTARRAK: HISTORIA APUR BAT

Institutu Erlijiosoak *Familia*tan banatu eta bildu izan dira, familiarte bakoitzak dituen historia eta espiritualitatearen arabera multzokaturik; XX. mendean, juridikoki ere zaindu dira batasun horiek, batez ere Kongregazio modernoak gizonezkoen Ordena nagusietara inguratzeko agindu zenetik (1905). Horrela, adibidez *Familia beneditar, frantziskotar* edo *agustindarraz* hitz egin daiteke, adibidez.

Familia erlijioso handienetako bat izan da tradizio frantziskotarraren ildoan eta ildora bildu dena. 1970eko hamarkadan, 432 Institutu Erlijioso frantziskotar zeuden Eliza katolikoan, dozenaka mila lagunekin, milaka etxerekin, ehunka Probintzia erlijiosotan banaturik (Iriarte 1979, 552. or.). Gaur egun ere bizirik dago hori dena (Federación Interfranciscana 1999, Zenbaiten Artean 1981).

Mugimendu frantziskotarra XIII. mendetik dator, eta San Frantzisko Asiskoa (1182-1226) eta Santa Klara Asiskoa (1194-1253) ditu gurasotzat. Mende hartatik hasita egon da presente Euskal Herrian (fraideak *c*. 1220; klaratarrak, Iruñea *a*. 1228); gerora, olatu-aldi historiko ezberdinek behin eta berriz indarberritu zuten.

Kasurik nagusienetan behintzat (frantziskotarrak$^{ofm}$, kaputxinoak; moja klaratarrak), laster batean errotu ziren gure herrian, hiriburutan bezala (Iruñea, Gasteiz, Baiona, Bilbo) herri txikiagotan (Tutera, Zangoza, Lizarra, Bermeo, Izaro, Ziburu, Kanpezu, Bastida, Sasiola, Arrasate, Tolosa, Zarautz...).

Fraideek ez ezik, moja frantziskotarrek ere osatu zuten mugimendua, eta nahiko maiz, lehenagotik eta herritik bertatik zetozen serorategiak Monasterio edo Komentu frantziskotar bihurtu ziren, horrela seroren elkarte haientzat Elizan eta gizartean babes juridiko seguruagoa irabaziz (Uribe 1986-1996, 339-447. or.).

Horrekin guztiarekin batera, ezin da ahaztu euskal laikoen elkarte frantziskotar handiena, *hirugarrendar* deituena, Hirugarren Ordenako herritarrena, alegia: ia 45.000 lagun$^{ofm}$ 1934an, 23.600 1960an (Ocerín-Jauregui 1928, Gutierrez 1935), eta euskal kulturan ere bere fruituak emandakoa: besteak beste, gogora *Zeruko Argia* kaputxinoa (1919) eta *Anaitasuna* biak$^{ofm}$ (1950, 1953) elkarte horientzako aldizkariak zirela.

Gainerako Familia erlijiosoentzat bezalatsu, frantziskotarrentzat ere Euskal Herria harrobi emankorra izan da bokaziotan, eta zenbatuta dago (zehaz-

tasun guztiz, gainera) Izanberrikuntzaren ondoko frantziskotar[ofm]-kaputxinoen kasua (Beraza & Agirrezabala1998), eta emakumezkoetan Institituren bat edo besterena (adibidez, Mariaren Frantziskotar Misiolarientzat: Gabilondo Pujol 2003, 967., 975. eta 978. or.). Erakunde horietako goi-agintean ere izan dute jarlekurik euskal herritarrek, hainbat Nagusi Jeneral tarteko.

Institutuen mugimendu sozio-erlijioso horrek guztiak XX. mendeko erdi-aldean jo zuen goia Euskal Herrian, zehazkiago 1940-1965.etako urteetan, eta berorri lotuta daude, esateko, Arantzazu eguneratzeko ahalegin eta emaitzak, arkitektura, arte plastiko eta literaturan (1950-1970). Euskal musikaren historiak hainbat musikari erlijioso izan du Aro honetan (ERESBILen lanak lekuko) eta Euskaltzaindiko bizitzan ere leku nabaria izan zuten, frantziskotarrak barne (Arana Martija 2003: 318-320).

## 2. «FRANTZISKOTARRAK»: ZEIN FRANTZISKOTAR?

Gainerako Familia erlijiosoetan bezala frantziskotarrenean ere Aro Garaikideak ugaritasun berri bat ekarri zuen, Institututan bezala laikoen Elkartetan ere. Komeni da, bada, euskal frantziskotarrak esatean zertaz ari garen zehaztea.

### 2.1. Mundu frantziskotar ugaria

Erakunde guztien hau mugimendu oso bat da, nazioartekoa eta, aldi berean, tokian tokikoa, gizonezko eta emakumezkoena, zeregin erlijioso-sozial ezberdinetan dabilena; alde batetik erlijiosoak izanik ere, apaiztarra eta ez-apaiztarra izan daitekeena, ekintzara emana edo kontenplalaria, eta mugimendu frantziskotar laikoaz ari garela, mota ezberdinetako lagunarteak sortuko dituena, maila ezberdineko lotura sozio-juridikoak izan ditzakeena. Eta ez da falta izan protestante frantziskotarrik munduan: Eliza Anglikanoan *Society of Saint Francis*, berrikitan Amerikan *Franciscans of Divine Providence* protestantea (Chicago-n,1995), edo sinestunen arteko *Order Ecumenical Franciscans*, esate baterako.

Mundu konplexu horretara hurbilduz, eta lehen iker-urratsak ematen hasteko, hemen Euskal Herriko lurraldera mugatuko nintzateke, zazpi euskal Herrialdeetara: bertan jaiotako frantziskotarrak hartuko dira lehenik aintzakotzat; hala ere, ezin gara beren sorterria gurean duten lagun frantziskotarretara mugatu, anitz izan baita erbestean sortu baina hemengo Etxeetan bizi izandako erlijiosorik.

Bestalde, euskal erbeste frantziskotarra ezagutzeko, Euskal Herriko mugak ere hautsi beharra dago: lehenengo, bertako Probintzia erlijiosoen lurraldeak batzuetan Euskal Herritik at ere zabaltzen zirelako (1964an, Arantzazuko Probintziako %54,1 fraide erbestean zebilen lanean) (Intxausti 2003b, 362 or.), baina baita hemendik kanpoko Probintzia frantziskotarretan erlijioso/a egindako euskal herritar asko egon delako ere: estatistiken arabera, aintzakotzat hartutako XX. mendeko hamarkadetan, %25 fraide euskal herritar izan da erbesteko Probintzia erlijiosoetakoa (Beraza 1998).

Gogora Zeanuriko kasu bitxia: inoiz gertatu da urte beretan Espainiako hiru Probintzia frantziskotarretako$^{ofm}$ Nagusi Probintzialak zeanuritarrak izatea. Andaluziako Probintzia frantziskotarrek Euskal Herrian izan zuten beren harrobietako bat, hemengoak baitziren haietako fraide izanberritzaileak, Errestaurazioa egin zutenak. Eta euskal diaspora frantziskotar honetan ez da Amerikarik falta izan (Errasti 1986, 1987, 2003). Honek guztiak gisa bertsuan balio lezake frantziskotar$^{ofm}$, kaputxino nahiz hirugarrendar kaputxino erregularrentzat, edo emakumezkoen hainbat Kongregaziorentzat.

Ezingo dira albo batera laga Iparralde-Hegoaldeen arteko aldeak, aldakuntza berak egin edo jasateko ere kronologia eta testuinguru soziopolitiko eta eliztar ezberdinak izan dituztenak (Frantziako Iraultza 1789an egin baitzen, eta Hegoaldeko Esklaustrazio handia 1833-1840.etan), eta hala ere, paradoxaz, elkarrengandik hurbil egoterik izan dutenak, Iparraldetik ihesi zetozen fraide-mojei Hegoaldean babesa ematean (1792, 1880, 1902), eta alderantziz, Hegoaldekoei Iparraldean eta Frantzian ere komentuak izanberritzen hasteko aukera eskaini zietenak (kaputxinoak Uztaritzen, 1842; frantziskotarrak$^{ofm}$ Donapaleun, 1851).

Erlijiosoen lurralde-barrutien historia, diozesiena bezalatsu, aintzakotzat hartzeko datua da Euskal Herrikoaz hitz egitean, izan ere berau bere osoan (Iparralde eta Hegoaldea batera) eta bakarrik ez baita, dakidanez, sekula euskal lurraldetasun bakar batean osorik bilduta egon; onenean ere (Hegoaldea bakarrik baina osorik denean, alegia), bi Aldeak banatuta ibili dira.

Hegoaldea Probintzia-barruti erlijioso bakarrean hartu duten Institutuak oso gutxi izan dira (kasurik hurbilenak karmeldar, berrikitan jesulagun edo klaretarrenak izan daitezke). Kaputxinoetan izan dute horrelakorik (*Nafarroa-Kantabria* deitu zutena), eta frantziskotarren historia nahasiagoa da (*Kantabria/Arantzazu* deitua).

Hau guztia historia idaztean, edo artxiboak banatu, lekuz aldatu eta gobernatzean ispilatu da, noski.

## 2.2. Fraide frantziskotarrak

Erlijioso frantziskotarren munduan gabiltzala, gurean izan ditugun Institutu Erlijioso ezberdinak gogora ekarri beharra dago, mugimendu osoaren historiari ekitean. Kaleko mundutik begiratuta harritzekoa bada ere, fraide eta mojek ezer gutxi jakin ohi dute Institutu hurkoei buruz: fraideek apenas dakiten zerbait mojen historiaz, jesulagunek ez dute pasiotarrena ezagutuko, beneditarrek urrun dituzte klaretarrak, etab. Eta areago: Familia erlijioso berean, frantziskotarrek$^{ofm}$ arrotza dute kaputxinoen historia, denak ere frantziskotar izan arren. Etorkizuneko historialariek ezjakintasunaren hesi horiek hautsi beharra daukate, gure kasuan frantziskotarren baitan, eta berauengandik hasita gainerako Familia erlijiosoetan ere.

Ezinbestekoa da, bada, Institutu frantziskotartzat hartuko direnak identifikatzea, Euskal Herrian izan ditugunak noski. Ez da beti erraza, beharbada gertakari jakin bakarren bati loturik daudelako (Euskal Herrian Etxe bakarra izan dutenen historia, esateko), edo hemengo presentzia pasadizokoa izan zelako (erbeste-aldi laburren bat, adibidez).

Hona zeintzuk izan diren fraide frantziskotarren Euskal Herriko Institutuak, XIII. mendetik hona, edo beranduago sortutakoak:

### Fraide frantziskotarren Euskal Herriko Institutuak

| Institutu Erlijiosoak | Sortze-urtea | Euskal Herrian |
|---|---|---|
| Frantziskotarrak (OFM) | 1210 | *c.*1220-1840 |
| Frantziskotar komentutarrak (OFM-CONV) | 1318 | *c.* 1220-1567, 1968 |
| Frantziskotar obserbanteak (OFM-OBS/gero: OFM) | 1415, 1517$^{ofm}$ | 1422; 1851, 1859 |
| Frantziskotar kaputxinoak (OFM-CAP) | 1528 | 1606-1840, 1879 |
| Frantziskotar Errekoletoak (OFM-REC) | 1637 | 1611-1792 |
| Kaputxino Hirugarrendar Erregularrak (TOR) | 1889 | 1920 |

Fraide-Institutu hauetako guztiek ez zuten izan Aro Modernoan pisu bera, ez munduan eta ez Euskal Herrian. Gurerako, frantziskotarrak$^{ofm}$ eta kaputxinoak dira batez ere garrantzizkoak, Erregimen Zaharrean izan zuten hedapenagatik ez ezik, gerora izanberritu eta gure egunak arte iraun dutelako; Errekoletoek komentu bakarra izan zuten (Ziburu, 1611-1792), segidarik izan ez duena, eta XX. mendeko gure kaputxino hirugarrendarrek (funda-

tzaileagatik *amigotarrak* ere deituak) hezkuntzan eman dituzte onenak (lehena: Amurrio, 1920).

Erregimen Zaharreko datuek diotenez, 1791 eta 1797an, hurrenez hurren Iparraldeko eta Hegoaldeko datuen arabera, frantziskotar fraide eta mojak 1.552 ziren: 944 fraide, 608 moja (Intxausti 2003b, 354 or.). XX. mendera gatozela, hemen bildu ezin ditudan datu zehatz asko jasota dauka Berazak bere estatistika-lanean (Beraza 1998). Orotara, frantziskotar[ofm] eta kaputxinoen artean 4.006 fraideren izenak bildu ditu: 2.654 frantziskotar eta 1.352 kaputxino. Ez dira, ordea, denak agertzen, adibidez kaputxinoetan Nafarroa-Kantabria-Aragoi Probintziako datuez kanpokorik ez dago bilduta, eta erabilitako iturriek baldintzaturik, *Schematismus* ofizialez[ofm] baliatuz1903az geroko frantziskotarrak[ofm] jaso ahal izan ditu (ez Izanberrikuntza osokoak: 1851..., 1859...); kaputxinoetan, ostera, 1900-1979 urteetakoak jaso dira.

## 2.3. Moja frantziskotarrak

Emakumezkoen monasterio eta komentuak Aro Modernoan ere ugarituz joan ziren, eta Institutu frantziskotar klasikoetako hiru izan ditugu Euskal Herrian, Ahizparte bakoitza betiere klausura hertsian bilduta beranduenik XVII. mendeko lehen hamarkadetatik aurrera.

**Emakumezko frantziskotarren Institutuak (XIII-XVIII. mendeak)**

| Institutu Erlijiosoak | Sortze-urtea | Euskal Herrian | Komentuak (2003) |
|---|---|---|---|
| Klaratarrak | 1215, 1253 | *a.* 1228 | 28 |
| Elisabetarrak[1] | 1229 | XV. mend. | – |
| Sorkundetarrak | 1489 | 1614 | 9 |

Hogeita hamazazpi Ahizparte horietako 12 Gipuzkoan egon ziren, 11 Bizkaian, 10 Nafarroan eta 4 Araban; sortzez zaharrena Iruñea/Erriberriko klaratarrena da (1228, 1803), eta gazteena Bermeokoena, baina jada itxia (1962-2002). Iparraldeko klaratarrena, Baionakoa, ez da izanberritu sekula,

[1] Elisabetar bezala jaiotako komentuak klaratar edo sorkundetarretara pasatuz joan dira, mendeak zehar, eta batez ere XX.ean: ondorioz, gaur egun ez dago frantziskotar elisabetarrik Euskal Herrian, baina historian erro oso herritarrak izan zituzten moja hauek, zuzenean herrietako serorategietatik sortuak baitziren.

eta ez dago, beraz, aurreko mendeetatik geratu den emakumezko frantziskotarren komentu edo monasteriorik.

XX. mendeko estatistika batzuk 1935ean eskaini ziren, eta idazlan berean ikus daitezke 1935ean klaratar, sorkundetar eta elisabetarrak nola zeuden banatuta orduan Euskal Herrian (Roldán 1935).

## 2.4. Kongregazio berriak

Hutsuneren bat edo beste gorabehera, frantziskotar mugimenduak loraldi berria ezagutu du azken mende eta erdian, sortu izan diren emakumezkoen Institutu berriekin batik bat, eta Euskal Herrian ere beren lekua segurtatu dutenen bidez.

Ezinbestekoa da, hortaz, Euskal Herrian aurkitu eta identifikatu ahal izan ditudan Institutu horiek –izenak bederen– hona ekartzea, historialari interesatuak mugimendua osorik gogoan izan dezan.

**Emakumezkoen Institutu frantziskotar berriak (XIX-XX. mendeak)**

| Institutuaren izena | Sortzea | EHan |
|---|---|---|
| Capuchinas de la Madre del Divino Pastor | 1850 | 1897 |
| Capuchinas de la Sagrada Familia | 1885 | 1922 |
| Franciscaines de la Immaculée Conception (Lons-le-Saunier) | 1842 | 1908 |
| Franciscaines de Marie Immaculée (Bordele) | 1863 | 1866 |
| Franciscaines du St. Esprit (Montpellier) | 1861 | 1904 |
| Franciscaines Missionaires de Marie | 1877 | 1900 |
| Franciscanas de la Inmaculada Concepción (Valentzia) | 1876 | – |
| Franciscanas de la Purísima Concepción (Murtzia) | 1879 | 1938 |
| Franciscanas de los Sagrados Corazones (Antequera) | 1884 | – |
| Franciscanas de Ntra. Sra. del Buen Consejo | 1896 | 1936 |
| Franciscanas Mis. de la Inmaculada Concepción (Bartzelona) | 1859 | 1908 |
| Franciscanas Misioneras de la Madre del Divino Pastor | 1850 | 1936 |
| Franciscanas Mis.de la Natividad de Ntra. Señora (*Darderas*) | 1883 | 1976 |
| Franciscaines de Marie Immaculée / Soeurs de St. François | 1862, 1968 | 1866 |

Orain-oraingoz, hauetako gutxi batzuek erabili dute euskarazko izenik (eta halakorik dutenean, ofizialki finkatu gabe, nik uste); hortaz, beren jatorrizko hizkuntzan utzi ditut izenak oraingoz. Zerrendakoren bat aurreko zenbait Kongregazioren batasuna da: «Franciscaines de Marie Immaculée» zirenak (Bordele, 1862) beste zenbaitekin batera «Soeurs de St. François» bilakatu ziren (1968). Zalantzazkoren bat zerrendatik kanpo utzi dut. Eta fundazio-urteak *cum mica salis* hartu behar dira, besterik ez bada datapen horiek izan ohi dituzten arazoengatik.

Beste nonbait idatzitako ohar hau ere gogoan hartzekoa izan daiteke: 14 Kongregazio hauek 74 Etxe izan dituzte Euskal Herrian, Herrialdez Herrialde honela banatuta: Bizkaian 28, Nafarroan 25, Gipuzkoan 13, Araban 3 eta Iparraldean 5. Institutu frantziskotar hauetatik Euskal Herrian Etxerik gehien «Capuchinas de la Sagrada Familia»k izan ditu (15); baina gerta daiteke Etxe gutxi izanik ere, erakarmen bortitza eta bokazio euskal herritar ugari izatea ere (esateko, «Franciscaines Missionaires de Marie»ren kasua da hori, «Moja Zuriak» bezala ezagutu izan zirenena, alegia). Gogoan har bedi Institutuok bizialdi luze eta motzeko Etxeak izan dituztela Euskal Herrian, lanbide-historia ezberdinekin.

Azkenik, gorago aipatutako fraideen arteko bat ere, emakumezko Institutu hauek bezala, Kongregazio berria da, hots, *amigotar* edo Kaputxino Hirugarrendar Erregularrena (1889an sortua).

## 2.5. Herritar laikoak

Berri emate hau burutzeko, aipa dezadan laiko herritarren lagunarte frantziskotarrena. Elizak oro har eta Institutu Erlijiosoek berezikiago harreman-sare soziala arretaz sortu, eratu eta zaindu izan dute, eta lagunarte laikoek mugimendu frantziskotarra gizartean ongi txertatu.

Donostiako Egia auzoko frantziskotarren$^{ofm}$ komentuan dozenaren bat lagunarte edo elkarte zenbatu ahal izan dut, izaera eta balio juridiko ezberdinekoak, nazioartekoak nahiz hemen bertokoak izan direnak, ehunka edo milaren bat bazkide izan dituztenak. Hirugarren Ordena deitua izan da klasikoena, eta frantziskotarrek$^{ofm}$ bezala kaputxinoek gogoz sustatu zuten Senitarte laiko hori, batez ere Leon XIII.ak laikoen elkarte bezala Eliza osorako berori hobetsi zuenetik (1882: *Auspicato* Entziklika). Historia orokorra ezagutzeko egoki dator Roggen (1977b).

Munduan, jada 1903an, 1.700.000en bat lagun zegoen Hirugarren Ordena frantziskotarrean; 1952an, berriz, 2.450.000. Euskal Herrian ere bere oihartzuna izan zuen horrek, manifestaldi handietan bezala bazkidezenbakitan. Honi guztiari 1978an Erregela berria eman zitzaion, mugimendu frantziskotar herritarra indarberritu nahirik (Paulo VI.aren *Seraphicus Patriarcha* gutuna). Herritarrak elkartzeko, frantziskotarren tradizioan Hirugarrendarrena izan da erakunde ofizialik zainduena, Etxe bakoitzeko Nagusiaren beraren eskuetan egon ohi zena; baina bestelako Elkarterik ere egon da Komentuetan.

Hona hemen XX. mendeko komentu jakin batean (Donostiako Egia-Atotxan) garatu zen lagunarte-sarea (1923-1998) eta gainerako Etxeetan ere (Elkarte nagusienekin behintzat) presente egon dena, deboziozko anaiarte ez ezik, betekizun sozialagoak izan zitzakeena.

**Herritar laikoen elkarteak (Donostia, 1923-1998)**

| | |
|---|---|
| 1925 | San Antonioren Onegintzazko Batasuna |
| 1926 | Hirugarren Ordena frantziskotarra |
| 1927 | Arantzazuko Andre Mariaren Kofradia |
| 1928 | Misio-Batasun Frantziskotarra |
| 1932 | Katekesia |
| 1938 | Antoniotarren Gaztedia |
| 1939 | San Bizente Konferentziak |
| 1950 | Gauezko Gurtza |
| 1950 | Fatimako Amaren Ekintza |
| 1963 | La Voz del Prójimo |
| 1967 | Mariaren Legioa |
| 1970 | *Jufra*: Frantziskotar Gazteria |
| 1971 | Gurasoen Elkartea |
| 1971 | Senar-emazteen Taldeak |
| 1979 | Alargunen Club Mistoa (V-2) |

Honaino iradokitako errealitate sozial horrek (Institutu zahar eta berri, fraide eta moja laikoen elkarteekin batera) duen konplexutasunagatik, itu-

rrien eta bibliografiaren albisteak biltzeak bere lanak ditu, eta ez da gertatzen beti lan erraza.

## 3. ITURRIAK ETA HISTORIOGRAFIA

XX. mendeko iturriak aurrekoetakoak baino ugariagoak dira, noski, eta xehetasun handi eta biziko ikuspegia eskaintzen digute, ez bakarrik azken hamarkadetako hori iragan hurbila dugulako, baita Institutuok XX. mendean barne-aldabide bizkorra izan dutelako ere.

### 3.1. Artxiboetako iturriak

Batez ere azpimarratzekoa da, joan berri den mendean halako eta hainbesteko barne-aldakuntzak ezagutu dituzten erlijioso Etxeetako biziera, pentsamolde, otoitz-modu, egunean eguneko ekonomia, fraideen ibilera eta abar ezagutzeko albiste-altxor handia eta mota guztietakoak daudela eskueran.

Institutuetan

Inoiz ez bezala, komentuetako egunerokotasunak lekuko anitz utzi digu XX. mendean, eta kasu honetan aukera aberatsak ditugu Etxe bakoitzeko fraide edo lekaime bakoitzaren ahotsak ere gertuagotik entzuteko.

Iturrien artean Fraidearteetako *Kronikak* aipatu behar dira hemen, garai bateko Kronika zaharrekin zerikusi gutxi dutenak: *Kronika* berriok ez dira mirari eta santu harrigarriz betetako orrialdeak, eguneroko xumetasun arruntez elikatuak baizik. Era bertsuan, baliagarri izan daitezke hainbat zehaztasunetarako Probintzia eta Komentuetako Hildakoen liburuak (Nekrologioak: kaputxinoentzat, Riezu 1958; frantziskotarretan$^{ofm}$, Ruiz de Larrinaga & Beraza 1995).

Baina historia hurbil horretako artxiboak edo berauetako zenbait sail ez da berehala ikerlariarentzat irekiko, eta ateak zabalik egon daitezkeenetan ikerkuntzarako baldintza egokiak sortu beharko dira, lehenik: agiriak sailkatu eta katalogatu, arretaz gorde. Horretan, Institutuetan egoera ezberdinak eta kontrajarriak ere aurkituko ditugu: bada Artxiboetan lan hori eginda edo egin samarturik duenik, bere arautegi eta guzti (Provincia capuchina 1993);

frantziskotarrak[ofm], ostera, berehala doaz horretara, entzuna dudanez. Komentutarren kasua[ofm-conv], beren historia bezala, etena izan da Euskal Herrian, eta Izanberritzean baita urruna ere (Italia edo Bartzelona), Nafarroako ekimen gutxitara mugatua: aipatuko dugu hauen bibliografia ere.

Hirugarrendar kaputxino erregularrak[tor] (*amigotarrak*, alegia) saiatu dira ekoizpen historiografiko txukuna eskaintzen, eta badago historialarientzako ikas- eta iker-gida ere (Vives 1994).

Emakumezkoetara gatozela, gogora ditzagun lehenik Erregimen Zaharretik datozkigun klausura hertsiko monasterioetako artxibategiak (frantziskotarretan K. Zubizarretak bere lagunekin txukundu zituenak). Inbentarioren bat argitara eman da, eta Erriberriko kasu berean badago agirien edizioren bat ere (Zubizarreta & Otero 1993; Ciérbide & Ramos 1997). Orain, artxibofuntsak Etxe gutxi batzuetan sakabanatuz edo metatuz joango dira, monasterioak desagertu ahala. Prozesu horren historia ere ezagutu beharko du historialari gazteak. Artxibo horiek iraganean biziera zaila izan badute ere, artxiboen oraingo joan-etorri hori bidegurutze are arriskutsuagoa izango da.

Emakumezkoen Institutu berrietan egoerak nahiko ezberdinak izan daitezke, batzuek artxibo-tradizio zaindua izan dutelako (Mariaren Frantziskotar Misiolariak, etab.) edo Institutuko *Historia* egokiren bat ere idatzita dutelako (Familia Santuaren Ahizpa Kaputxinoak), baina, sarrienik, horrelako egoera onik gabeak izango dira.

Institutu berri txikienetan aldrebesagoa dateke artxiboen hau: alde batetik, Artxibo Nagusietako katalogatze-arazoak dituztelako, eta bestetik, itxi diren edo ixtear egon daitezkeen Etxeetako paperen nondik norakoak iturriak galzori ziurretara daramatzalako. Nola jaso ote dira agiriak? Nora ote doaz orain? Non gordeko ote dira? Egin kontu Institutu horiek gehienetan Euskal Herritik kanpo dituztela Egoitza zentralak; oro har, pentsa daiteke, bada, hemengo albiste-paperak erbestera joango direla Euskal Etxeak itxi ahala, eta Euskal Herria beraien albisteak galduz joango dela, seguruenik. Agirien beren bilaketa aitzinetik, premiazkoa izango du ikertzaileak artxibategiak non geratzen zaizkigun jakitea.

Lehenik ez bada, laster jakin beharko genuke Erroman edo nonahiko Egoitza Zentraletan zer duten gogoan ditugun hemeretzi/hogei Institutu horiek, betidanik han bildu izan dutenaz gain, hemengo Etxe edo Probintziak desagertzean han metatuz doana ere ez galtzeko. Dena den, hara baino lehen, Institutuko Artxibategi Zentrala, nonahi dagoela ere, beti izango da miatu beharrekoa.

Euskal Herrikoaren biltokia hemen berton dugunetan, begiratzekoa da zenbat errekasto ezberdinetatik etorritako paperak bildu ohi diren Artxibategi Probintzialetan; izan ere, inoiz edo beste Kuria Probintzialeko bertako administrazio-protokoloak ez ezik, Etxeetako agiri historikoak jada jaso baitira honelakoetan. Beraz, Artxibategi horien arduradunengana joan beharra dago, batzuetan erraztasun onak eman ditzaketelako, eta edozein kasutan ere, ikerbidean beraien laguntzarik gabe aurrera egiterik ez dagoelako.

Azken aldiko joan-etorrien aurretik jada iradoki dugun Institutu-barrutien geografia historikoa dago: Euskal Herria bere horretan aintzakotzat hartu duena (oso gutxitan), edo gureari ez-ikusi egin dion geografia. Eta barruti erlijiosoen horrek ondorio zuzenak izan ditu, noski, artxiboak sortu eta kudeatzean.

Barrutien lurralde-mugaketa gorabehera, fraide frantziskotarren Probintziak, maiz, hertsiki loturik egon dira Euskal Herriari bestelako baldintza ez-geografikoengatik (Institutuko demografia euskal herritar sendoa, Hezkuntza-Etxeak hemen kokatuak, etab.). Emakumezkoen bizierak ñabardura bereziagoak ditu, eta kasu oso kontrajarriak daude Euskal Herriarekiko.

Klausurako Institutu zaharrek, ordea, betiko leku-finkotasuna eta autonomia izan dituzte (Esklaustrazioaz geroztik Gotzainaren mende, baina fraideen egitura probintzialekin ere harremanetan). Hauen barruti kontutan, 1950eko hamarkadaren ondoren Elkarte orokor bateratzaileak ere sortu dira, Monasterioen Federazioena; XX.eko azken mende-erdian ez dira ahaztu behar moja itxien batasun hauek.

Institutu nahiz Probintzia erlijiosoena bere osotasun zabalean ez ezik, tokian tokiko zehaztasunean ere begiratu behar da: Egoitza edo Etxe bakoitzaren historiak dira fraide edo moja bakoitzak bertatik bertara eta egunerokotasunean bizi izan dituenak. Bizimoduak eta pentsamoldeak halako iraulketa ezagutu duten azken hamarkadetan, Etxeak eta berorietako ibilera berriak ezagutzea nahitaezkoa zaio historialariari, hainbat erabaki behetik gora hartu direnean Institutuetan. Begira bitez Etxeetako kronikak, bilera-aktak, egunkari pertsonalak, hilondoko biografiak, gutuneria, etab.

Institutuetatik kanpo, eliz artxibo orokorrak, noski, garrantzizko albiste harrobiak dira, Parrokietatik hasi, Diozesietako Artxiboetara pasa eta Erroman bukatu arte. Diozesien hori ez da Institutu Erlijiosoen egitura-piramidean dagoena, baina albotik eta zeharka bi aldeen arteko harremanek (Diozesiak/Institutuak) lekukotasun anitz dute eliz artxibo orokorretan Institutuei buruz ere.

Dena den, frantziskotar[ofm] iturrien kontu honetan, gidaririk bat edo beste topa daiteke XIX-XX.etarako (Zubizarreta 2003, Vives 1994); inoiz badago iturri-edizioren bat (adibidez, Aro Modernorako: Uribe 1988, 435-615 or.; 1996, 639-707 or.), apenas ezer gerokoaz, nahiz eta lekukoren baten ediziorik egin den, Arantzazu Probintziaren[ofm] izanberritzeaz (Solaguren & Maiz 1978). Kaputxinoen iturri argitaratuena, ostera, aberatsagoa dugu (Echeverria 1997-1998).

## Artxibo zibiletan

Institutu erlijiosoen iragana ez da izan gertakari eliztar hutsa; alderantziz, gizarte zibila ere arduratu izan da Institutuen garapen eta hedapenaz, edo kontrakoaz.

Batzuetan, herri-agintariek tokian tokiko premiei erantzun nahirik deitu izan dituztelako (kasu eredu bat Karitateko Alabena izan da, Erruki-Etxe, Ospitale eta abarretan, eta moja frantziskotarrik egon da gure Hiriburuetako Kliniketan), edo alor bereziagoetan lankidetza eman dutelako (Amurrioko amigotarrak, gazte alboratu edo bereziekin egindako lana). Horrek guztiak bere artxiboak ditu, eta beharbada monografia argitaratuak.

Sarritan, ordea, agintari zibilen eskerik gabe, Institutuak berak izan dira Etxeak sortzeko ekimena izan dutenak: nabaria izan zen hori XX. mendeko lehen hamarkadan, Frantziako Institutuak bat-batean Hegoaldean agertu zirenean (Espainian 1899-1912.etan sortutako Institutu berrietako % 60 Frantziatik etorritakoa zen) (Faubell 2000, 142 or.). Eta Euskal Herriko moja frantziskotarretan ez da falta horrelakorik (ikus Institutuen goiko laukia).

Modu batera edo bestera, Institutuak gizarte zibilaren barruan bizi izan dira, eta beronek ezartzen zizkien lege eta arauen barnean jokatu behar izan dute, batean harmonia onean, eta bestean gatazka eta interes kontrajarrien artean. Hain zuzen, XX. mendeko Espainia-Frantzietan eta Euskal Herrian Institutu Erlijiosoen presentzia eta garapenak klerikalismo/antiklerikalismoen historiako parte ere badira.

Hortaz, Administrazio zibilak Institutu eta Etxe erlijiosoak begiratu behar zituelako eta berorien bizitza nahitaez arazo soziopolitiko gertatzen zelako, artxibo zibiletan dago horren guztiaren aztarna: Udal Artxibo, Epaitegi, Probintzietako Artxibo, Estatuetako Artxibo-Erakundeetan, edo «Aranzadi» lege-bildumetan bertan ere.

Ohizko ibileratik at, Elizak eta Estatuek bortizki talka eginik une gatazkatsuagoak gertatu direnetan, Artxibo zibilek lekuko idatzi asko bildu izan dute (horrela Desamortizazioan, nahiz Esklaustrazioan, Erbesteratzeetan, politika erlijiosoaren eztabaida eta abarretan).

## 3.2. Historiografian

Ikerlari gazteak beti izan ohi du zailtasun handiagoa hasieran arrotza den edozein iker-eremutara hurbiltzeko. Bestalde, Euskal Herri eta Espainiako Unibertsitate zibiletan ezer gutxi begiratu izan da Institutuen historia; Frantziako kasua bestelakoa gertatzen ari da, ordea. Komeniko da, bada, albiste orokor batzuk hona ekartzea.

Familia frantziskotarra: argibide orokorrak

Historiografia aipatzean (euskal bibliografoei begiraturen bat eman ondoren), lehenik Institutu Erlijioso katoliko guztien hiztegi handia ekarri behar da hona: *Dizionario degli Istituti di Perfezione* (Pellicia & Rocca, 1974-2003). Kontsulta tresna erosoa eta aberatsa da, lehen notizia bibliografikoak jaso eta Euskal Herriko albiste sakabanatuak xerkatzeko ere. Zoritxarrez, indarrean dagoen azken bibliografia arakatu behar da, eta horretan, zorionez, Erromako Kaputxinoen Institutu Historikoak lan-erdia eginda ematen digu bere aldizkarian: *Bibliographia Franciscana* (1942...). Oso arrunta da, gainera, historia zabaletan ohar bibliografiko sistematikoak aurkitzea (ikus, adibidez, Iriarte 1979, 17-39 or., aipatuko ditudan *Dictionnaire d'Histoire et Géographie Ecclésiastiques*eko idazlanak, nahiz Merlo 2005, 489-536 or.).

Aldizkako argitalpen historikoak ez dira falta Espainian (*Estudios Franciscanos*, 1907...; *Archivo Ibero-Americano*, 1914...), Frantzian (*Études Franciscaines*, 1899...), Ipar Amerikan (*The Americas*, 1944...), Alemanian (*Franziskanische Studien*, 1914...) edo Italian (*Archivum Franciscanum*, 1908...; *Studi Francescani*, 1903..., eta abar). Ikerlariak, denak ez bada ere, Arantzazuko edo Iruñeko kaputxinoen liburutegietan aurkituko ditu.

Arantzazun argitara ohi den «Hermano Francisco» bildumako zenbait ale ikerlari gaztearentzat itsumutil ona izango da; bereziki gomendagarria izan daiteke mugimendu frantziskotarraren lehen mendea ezagutzeko obrarik eguneratuena dugun Bartoli & Prinzivalli 1999.

Honela (frantziskotarren iker-eremua bere osoan hartuta alegia), Ordena ezberdinetako ikertegi akademikoek zerbitzu onak eskain ditzakete (Erroma, Bartzelona, Madril, Asis-Perugia, Washington, Werl eta bestetan), beren iturri-argitalpenen bidez ez ezik (*Bullarium, Analecta, Monumenta...*), ikerlan eta aholku-emaile bezala ere. Euskal Herria bere horretan horietako ikerlariengandik urrun samar geratu ohi da, ikertzaileak berak euskal herritarrak ez badira behintzat. Institutuetako hemen bertoko fraide jakitunek hurbiltasun hobea dute gure lurralde frantziskotarrarekin (Uribe eta Azconak, adibidez).

Frantziskotar Familiaren *Historia* orokorrak lehen panorama bazterezina dira, noski, hainbatetan historialariaren araberako *pro domo* kutsua duten arren. Frantziskotarrentzat[ofm], bere zaharrean ere, estimagarria da Holzapfel (1909), eta begiratzekoa, besteak beste Batasun Leondarrera bildutako (1897) Adar ezberdinen Aro Modernoko historia anitzaz jabetzeko. Hurbilago, Iriarte kaputxino nafarrak eman digu horren parekoa (1979).

## Institutu frantziskotarren historiak

Institutu frantziskotar bakoitzari buruz diharduen gaur eguneko historiografia berezitua aipatzea ere komeni da. Ohar bat nahikoa izango da albistegi eroso eta seriosa eskuetan izateko: *Dictionnaire d'Histoire et Géographie Ecclésiastiques*ek bere XVIII. alean emandako informazio eta bibliografia (1977, 824-871 or.) laguntza ziurra da ikerlari hasi berriarentzat (frantziskotarrak[ofm]: Schmitt eta abar; komentutarrak: Di Fonzo; kaputxinoak: Pobladura; klaratarrak: Roggen; hirugarren ordenak: Roggen). Familiaren historien ondoan, Institutu frantziskotar bakoitza saiatu da norberarena ematen: Holzapfelenak hutsune hori bete nahi izan zuen batik bat, kasik modu ofizialean, eta Kaputxinoek, beste neurri eta tamaina bateko obra dute Aita Pobladuraren *Historia generalis Ordinis Minorum Capuccinorum* (1951...) handian, eta kontsulta orotarako hiztegia *Lexicon*ean (Zenbaiten Artean 1951a).

Institutuek betidanik maite izan dute beren iragana ezagutu eta komeni zitzaienean apaintzea; horregatik, Probintzia frantziskotarretako[ofm] **Kronika zaharrak** gogoan hartzekoak dira: XVIII.eko Melchor Amigo-ren Kantabriakoa galduta dabilenez (Londres-en ote? Landazuri baliatu zen hartaz), erbesteko Probintzia frantziskotarretakoak[ofm] begira daitezke, beroriek garai batzuetan bederen Euskal Herriko Etxeak ere beren baitan zituztelako (Burgosko kronikariak: Arce, Salazar, Garay, Hernáez de la Torre edo Sáinz de

Arquiñigo; Aragoikoa: Hebrera). Berorietan lasto askoren artean egon badago albiste aberasgarririk, eta ia garaiko pentsamoldeen ispilu dira betiere. Historiografia horren ibilera Sanz Valdivieso 2005-ek eman digu.

Institutuetatik kanpo, **euskal historiografiak** bestelako ekarpena dakarkigu. Eskuarki gizartean ez ezik, euskal historialariei ere ez zaizkie gertatu arrotzak Institutu Erlijiosoak, lehenik historialari klasiko handiei eta gertuago XX. mendeko zenbaiti. Hegoaldean bezalatsu Iparraldean, XVI-XIX. mendeetakoek, bakoitza bere muga eta informazioarekin, Institutuen historia ispilatu nahi izan dute; hor daude izenak: Garibai, Oihenart, Arkaia, Moret, Henao, Veillet, Landazuri, Gorosabel nahiz Labayru-rengandik, adibidez, hainbat albiste bildu ahal izan da frantziskotarren kasuan (Intxausti 1998).

Hala ere, oro har esan daiteke muga nabariak dituela historia-eremu honetan euskal historiografia klasikoak: historialariok ez dira Institutuetako artxibo eta historiografiaren ezagutzaile onak (salbuespenik behar balitz, Landazuri izan daiteke bat), baina badute beste alde onik, euskal gizartea ezaguna zutela eta Institutuen hemengo presentziaren garrantzia neurtzeko gai zirela, betiere euskal iturriak hobeki ezagutzen zituztelako.

Haiengandik honago, gaur **egungo ikertzaileek** ere urrun suma ditzakete Institutuen barneko iturri historikoak (baita argitara emanda daudenean ere), eta are gehiago eliz mundua arrotz gertatzen ari den gizarte sekulartutik lanean hastean. Egia da inoiz baino hobeki ezagutzen direla orain Erdi Aroko tradizio beneditarreko iturriak (hainbat edizio egin delako: Leire, Iratxe, etab.), baina Eskeko Ordenen edo Institutu modernoen iragan garaikidea ezagutzeko, eskas gabiltza argitalpen on akademikotan.

FRANTZISKOTARRETAN[ofm] lehenik hiru gernikarren lana ekarri behar da hona (Larrinaga, Uribe, Solaguren). Joan Ruiz de Larrinagak eman zuen bere garaian frantziskotarren[ofm] bibliografiaren berri (1935, 180-208 or.), eta K. Zubizarreta eta J. Etxeberriak Arantzazuko liburutegian dute argitaragabe frantziskotarren[ofm] bibliografia osatua: *Autores cántabros [de la Provincia Franciscana de Cantabria/Arantzazu].*

Uriberenak XIII-XVIII. mendeak eman zizkigun (eta argitaratu gabeko luzapen-kapitulu bat ere badago, itxuraz bukatu gabea); baina, jada XIX.erako, Solagurenek utzitako obra sozio-biografiko erraldoia kontsulta-tresna baliotsua gertatuko da, albisteengatik ez ezik, erabilitako iturriez ematen dituen argibideengatik, eta lehen liburukian eskaini dizkigun azalpen historiko orokor eguneratu eta zehatzengatik (Solaguren 2007a, 2007b).

Kantabria/Arantzazutik kanpo, Iparraldean Akitaniako Probintzia izan da XIX-XX. mendeak eraman dituena, Donapaleutik hasi eta aurrera: oinarrizko idazkiak ditugu O. De Pavie-renak (1900-1907, 1910), eta ondokoaz Dedieu-k eskaini zizkigunak (1978, 1988).

Misio frantziskotarren[ofm] historiak izan ditu bere berri emaileak, osotasunean aztertu gabeko eremua bada ere. Aipatu dut Latinoamerikari buruzko Alvarez Gila-rena, eta gureanago ikus Salazar (1935), Alvarez Gila (1998b), Alvarez & Arrieta (2004); Ameriketatik harago, berriz, ikustekoak dira Txinarako Omaetxebarria (1935, 2001b), Urruchurtu (1962) eta Willeke (1984) ditugu, Kubarako Apraiz (1935) eta Larrua (2004, 2005); eta Durán Estrago Paraguairako (1987-1988), Aseguinolaza Boliviarako (1996) edo Beitia Korearako (1999) kontuan hartu behar dira. Kantabria/Arantzazu Probintziatik at Akitaniakoena aipatuko dut (Zenbaiten Artean 1952), Marokorako euskal ekarpena (Lourido 1992) edo Lur Santuetakoa (Arce 1967).

Azkenik, etxez etxe nahi den historiarako badago zenbait monografia frantziskotar[ofm]: Arantzazuri buruz lehengoaz gain (Gamarra, Luzuriaga), gerokoak (Rodríguez Pastor 1880, Lizarralde 1950) eta bosgarren mendeurreneko argitalpenak dauzkagu (Intxausti 2003, Pagola 2005). Santutegiaren erbesteko proiekzioa Alvarez & Arrieta 2004-an ikus dateke, eta gai berari dagokion Oñatiko Kongresuko bigarren partean (argitaratzeko berau), Luque Alcaide ahaztuta utzi gabe (1995). Komenturen batek edo bestek badu bere ikerlanik: Erriberri (Zenbaiten Artean 1981), Bermeo (Uribe 2000), Donostia (Intxausti 2005), Zarautz (Intxausti & Iturria 1995), eta abarri buruzko lan llaburragoak ere. Orain, fraide-komentuen historia laburtuekin batera Aro Garaikideko Komentuez bibliografia ere topa daiteke (Intxausti 2002). Bukatzeko, ez dira baztertu behar noizbehinka *Cantabria Franciscana* barne-aldizkarian edo *Arantzazu*n agertu izan diren lan historikoak. Hemen aipatuetatik abiatuta, ikerlariak bibliografia osatuz joateko aukera izango du, gainera.

KAPUTXINOEI dagokienez, Penintsula Iberiarreko historia orokorra eskaini nahi izan duena eskueran dago (González Caballero 1985), eta gurera etorriz, hasteko Iruñeko Harresiz Kanpoko komentuan dago idazle kaputxinoen bibliografia bildu duen aparteko liburutegi-artxiboa; bestalde, bi obra bibliografiko zabal dauzkagu orain eskueran (Pérez Aguirre & Pérez de Villarreal 2000, Cabodevilla 2005): argitalpenak ezagutzeko ez ezik, iturrietatik zer dagoen argitaratuta eta artxiboen albisteak ezagutzeko balio dute.

XX. mendeko historiaz jabetzeko hor dago, noski, beste zenbait ere, iturri eta lekukoengandik zuzenean jasotako albistez hornituta azken mendea osorik besarkatu duen trilogia (Zenbaiten Artean 1951, 1975, 2000), guztion aurreko Añorberen *Historia* aintzakotzat hartu ondoren (Añorbe 1951a).

Azken hiru liburu horietan beti zaindu dira komentuetako historiak; era berean, tokiko historiaz kaputxinoen barne-aldizkarietako idazlanak begiratu beharra dago, Iruñeko Kuria Probintzialak argitara eman ohi dituen lan laburrak bezala. Monografiatan, T. Azconak eman ditu hiru: Errenteria (1983), Zangoza (2000) eta Iruñeko Harresiz Kanpokoa (2006). Iparraldeari eta Izanberrikuntzari buruz dihardugula, Uztaritze eta Baionako komentuek ere beren historiak merezi izan dituzte (Pérez de Villarreal 1988, 1990).

Kaputxinoen misioak sarritan daude presente Probintziako argitalpenetan, aldizkari eta liburuetan, eta berariaz gaiari buruzkoak ere hor daude: Hernández (1992), Cabodevilla (1992, 1995), Ortiz de Villalba (1997), Galíndez (2000), Amerika, Asia eta Ozeania besarkatuz.

Zailagoa da frantziskotar KOMENTUTARREN iragana (OFM-CONV) eskuratzea. Lehen urrats bezala historia orokorrak daude (Di Fonzo 1977, Di Fonzo, Odoardi & Pompei 1978), eta garai komentutarretako Nafarroari buruzko sintesi eguneratua (Jimeno Aranguren 2006); XVI.eko komentutar/obserbanteen arteko gatazkaz azken urteetan egin da lanik, Felipe II.aren Nafarroako politika erreformatzailea arakatzean 1567ko data historikoa argituz (Fernández-Gallardo 1999, 2006).

XX. mendera gatozela, komentutarrek Nafarroan izan dute egoitzaren bat edo beste, 1968az geroztik; izanberritze horren garapena, modu xumean bada ere, jasota dago Penintsulakoaz dihardutenlanetan, gehienetan kasik lekuko pertsonalen albisteak bilduta: mende-hasierako egunetatik ekin (Barredo 2006; Redondo & Ginés 2006) eta gure egunak artekoa (Román Martín 2006). Urte bereko lanok Kongresu monografiko bateko Akta bezala kaleratu dira (Bartzelona, 2005).

HIRUGARRENDAR Kaputxino Erregularrek (TOR) historia orokor ezaguna dute, T. Roca Chust-ena, sei liburukitan emana (Roca 1968-1989). Aipatu den Vivesen gidarekin batera bide-lagun ona da, noski, Roca, Institutuaren historia orokorrerako. Euskal Herrikoa ere hor barne dago, eta Amurrioko Salbatore

Ikastetxeaz zabalki dihardu (Roca 1968-1989: II, 89-101 eta 239-255 or.; III, 52-54 or. eta IV.a osorik). Horren ondoan, Penintsulako albisteen artean bilatu behar dira euskal Hegoaldekoak ere; bestalde, gurean izandako Etxeen berri eman duen bibliografiarik badago, Amurrio, Iruñea, Loiu edo Portugaleteko lanak aurkeztuz (Vives 1994, 40-42 or.; Vives & Rodríguez 2003).

